



Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik.

El presente texto es un documento de divulgación sin ningún carácter oficial

2/2014 FORU ARAUA, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarena.

NORMA FORAL 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

III. KAPITULUA Beste kenkari batzuk

CAPÍTULO III Otras deducciones

62. ARTIKULUA. IKERKETA ETA GARAPEN JARDUEREN ZIOZKO KENKARIA.

ARTÍCULO 62. DEDUCCIÓN POR ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO.

1. Ikerketa eta garapen jarduerak egiteak kuota likidoan kenkaria aplikatzeko eskubidea emango du, artikuluan honetan eta foru-arau honetako 64. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

1. La realización de actividades de investigación y desarrollo dará derecho a practicar una deducción de la cuota líquida, en las condiciones establecidas en este artículo y en el artículo 64 de esta Norma Foral.

2. Ikerketa eta garapentzat hartuko dira:

2. Se considerará investigación y desarrollo:

a) Ezagutza berriak aurkitzeko eta zientzian edo teknologian goi ulerkuntza bilatzeko egiten den "oinarrizko ikerketa" edo azterlan original eta planifikatua, betiere merkataritzaz edo industria helburuetatik kanpokoa.

a) La "investigación básica" o la indagación original y planificada que persiga descubrir nuevos conocimientos y una superior comprensión en el ámbito científico o tecnológico, desvinculada de fines comerciales o industriales.

b) Ezagutza berriak aurkitzeko egiten den "ikerketa aplikatua" edo azterlan original eta planifikatua, betiere ezagutza horiek produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzen edo lehendik daudenak nabarmen hobetzen erabiltzekoa bada.

b) La "investigación aplicada" o la indagación original y planificada que persiga la obtención de nuevos conocimientos con el propósito de que los mismos puedan ser utilizados en el desarrollo de nuevos productos, procesos o servicios, o en la mejora significativa de los ya existentes.

c) Ikerketa aplikatuaren emaitzen "garapen esperimental" edo produktu, prozesu edo zerbitzu berrien plan, eskema edo diseinu batean aplikatutako ikerketaren gauzatzea, edo emaitza horien hobekuntza nabarmena, bai eta merkaturatu ezin diren prototipoen sorrera eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak ere, baldin eta aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili ezin badira.

c) El "desarrollo experimental" o la materialización de los resultados de la investigación aplicada en un plan, esquema o diseño de nuevos productos, procesos o servicios, o su mejora significativa, así como la creación de prototipos no comercializables y los proyectos de demostración inicial o proyectos piloto, siempre que los mismos no puedan convertirse o utilizarse para aplicaciones industriales o para su explotación comercial.

d) Software aurreratuaren sorkuntza, baldin eta horrek aurrerapen zientifikoa edo teknologikoa nabarmena badakar, dela teorema eta algoritmo berriak garatuz dela sistema eragile eta lengoia berriak sortuz, edota pertsona ezgaituak informazioaren gizarteko zerbitzuetara sartzeko egiten bada. Softwarearekin erlazionatuta dauden ohiko edo betiko jarduerak hortik kanpo geratzen dira.

d) La concepción de "software" avanzado, siempre que suponga un progreso científico o tecnológico significativo mediante el desarrollo de nuevos teoremas y algoritmos o mediante la creación de sistemas operativos y lenguajes nuevos, o siempre que esté destinado a facilitar a las personas con discapacidad el acceso a los servicios de la sociedad de la información. No se incluyen las actividades habituales o rutinarias relacionadas con el "software".

3. Kenkariaren oinarrian ondokoak sartuko dira: ikerketa eta garapen gastuen zenbatekoak eta, bidezkoa izanez gero, ibilgetu material eta ukiezinako elementuetan (higiezinak eta lurra ez besteetan) egindako inbertsioak.

3. La base de la deducción estará constituida por el importe de los gastos de investigación y desarrollo y, en su caso, por las inversiones en elementos de inmovilizado material e intangible, excluidos los inmuebles y terrenos.

Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko gastutzat hartuko dira subjektu pasiboak egindako gastuak, baldin eta jarduera horiei zuzenean lotuta badaude eta benetan jarduera horietan erabili badira. Proiektuen arabera banaka sailkatuta agertuko dira gastuak.

Se considerarán gastos de investigación y desarrollo los realizados por el contribuyente, incluidas las amortizaciones de los bienes afectos a las citadas actividades, en cuanto estén directamente relacionados con dichas actividades y se apliquen efectivamente a la realización de las mismas, constanding específicamente individualizados por proyectos.

Halaber, kenkariaren oinarrian sartuko dira Europar

También formarán parte de la base de deducción los gastos

Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan egindako jardueri dagozkien ikerketa eta garapen gastuak ere.

Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren estatuetan egindako jardueren gastuei dagokienez, hauek ere kenkarirako eskubidea izango dute, baldin eta ikerketa eta garapeneko jardura nagusia Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egiten bada eta gastuen zenbatekoa guztirako inbertsioaren % 25 baino gehiago ez bada.

Ikerketa eta garapeneko gastutzat hartuko dira, era berean, jardura horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egiteko asmoarekin zergadunak, berak bakarrik edo beste entitate batzuekin batera, ordaintzen dituen diru kopuruak.

4. Kenkari ehunekoak hauek izango dira:

a) Kontzeptu hau dela-eta zergaldiaren barruan egindako gastuen % 30.

Ikerketa eta garapen jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuak aurreko bi urteetan izandako batez bestekoa baino handiagoak badira, batez besteko horretara iritsi arte aurreko paragrafoan jasotako ehuneko aplikatuko da, eta batez besteko horretatik gorako soberakinari, berriz, % 50.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera egokia den kenkariaren gain, % 20ko kenkari gehigarria egingo da zergaldiko gastu hauengatik:

a') Entitateko langileria gastuengatik, ikerketa eta garapen jardueri oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatuei dagozkienean

b') Ikerketa eta garapen proiektuetan egindako gastuak, proiektua hauetako batekin kontratatuta egonez gero: unibertsitateak, ikerketako erakunde publikoak edo zentro teknologikoak eta teknologiaren berrikuntzarako zentroak (hala onartuta eta erregistratuta daudenak Estatuko zentro teknologikoak eta teknologiaren berrikuntzarako zentroak arautu eta zentro horien erregistroa sortu duen abenduaren 19ko 2093/2008 Errege Dekretuaren arabera), eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarriak eguneratzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren bidez araututako Teknologiaren Euskal Sarean dauden entitateak.

b) Ibilgetu material eta immaterialeko elementuetan egindako inbertsioen % 10, higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita, baldin eta bakar-bakarrik ikerketa eta garapen jardueri atxikita badaude.

5. Ikertzaileek Gizarte Segurantzako kotizazioetan duten hobaria (Ikertzaileen Gizarte Segurantzarako kotizazioetako hobariei buruzko 2014ko ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretuan arautua) bateragarria izango da ikerketa eta garapen jarduerak direla-eta ezarritako kenkariaren erregimenaren aplikazioarekin, mikroenpresen zein enpresa txiki eta ertainen kasuan.

de investigación y desarrollo correspondientes a actividades realizadas en otros Estados miembros de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo.

Respecto a los gastos correspondientes a actividades realizadas en Estados no pertenecientes a la Unión Europea o al Espacio Económico Europeo, también podrán ser objeto de la deducción siempre y cuando la actividad de investigación y desarrollo principal se efectúe en un Estado miembro de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo y aquellos no sobrepasen el 25 por 100 del importe total invertido.

Igualmente tendrán la consideración de gastos de investigación y desarrollo las cantidades pagadas para la realización de dichas actividades en un Estado miembro de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo, por encargo del contribuyente, individualmente o en colaboración con otras entidades.

4. Los porcentajes de deducción serán los siguientes:

a) El 30 por 100 de los gastos efectuados en el período impositivo por este concepto.

En el caso de que los gastos efectuados en la realización de actividades de investigación y desarrollo en el período impositivo sean mayores que la media de los efectuados en los dos años anteriores, se aplicará el porcentaje establecido en el párrafo anterior hasta dicha media, y el 50 por 100 sobre el exceso respecto de la misma.

Además de la deducción que proceda conforme a lo dispuesto en los párrafos anteriores se practicará una deducción adicional del 20 por 100 del importe de los siguientes gastos del período:

a') Los gastos de personal de la entidad correspondientes a investigadores cualificados adscritos en exclusiva a actividades de investigación y desarrollo.

b') Los gastos correspondientes a proyectos de investigación y desarrollo contratados con Universidades, Organismos Públicos de Investigación o Centros Tecnológicos y Centros de Apoyo a la Innovación Tecnológica, reconocidos y registrados como tales según el Real Decreto 2093/2008, de 19 de diciembre, por el que se regulan los Centros Tecnológicos y los Centros de Apoyo a la Innovación Tecnológica de ámbito estatal y se crea el Registro de tales Centros, y con Entidades integradas en la Red Vasca de Tecnología regulada en el Decreto 221/2002, de 1 de octubre, por el que se actualizan las bases de regulación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

b) El 10 por 100 de las inversiones en elementos de inmovilizado material e intangible, excluidos los inmuebles y terrenos, siempre que estén afectos exclusivamente a las actividades de investigación y desarrollo.

5. La bonificación en la cotización a la Seguridad Social del personal investigador, regulada en el Real Decreto 475/2014, de 13 de junio, sobre bonificaciones en la cotización de la Seguridad Social del personal investigador, será compatible con la aplicación del régimen de deducciones por actividades de investigación y desarrollo establecido en este artículo para las microempresas,

6. Gainerako enpresa edo entitateen kasuan ere, 2014ko ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretuan araututako hobaria bateragarria izango da kenkari honekin, baina ikertzaile berari aplikatzen ez bazaio. Halakoetan, enpresek bi aukera dituzte: batetik, hobaria aplikatzea Gizarte Segurantzako kotizazioan, errege dekretu horren 2. artikuluan aipatzen diren langileei dagokienez; bestetik, kenkaria aplikatzea langileok parte hartzen duten eta ikerketa eta garapen jarduerak egiten dituzten proiektuen ondoriozko kostuengatik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat, enpresa berarentzat bateragarria izango da, proiektu berean, ikertzaile batzuen kasuan hobariak aplikatzea eta beste ikertzaile batzuk direla-eta kenkariak aplikatzea.

7. Zerga Administrazioak eskaturik, hobariak eta kenkariak aplikatzen dituzten entitateek edo enpresek urteko memoria bat aurkeztu beharko dute, egindako jarduerak zein proiektuak eta hobariak ukitutako ikertzaileak jasoko dituen.

63. ARTIKULUA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERENGATIKO KENKARIA.

1. Berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteak eskubidea emango du kuota likidoan % 15eko kenkaria aplikatzeko artikuluko honetako 3. idatz-zatiko b) eta c) letretan azaldutako kasuetan, eta % 20ko kenkaria, aldiz, idatz-zati bereko a) eta d) letretako kasuetan, artikuluko honetan eta hurrengoan ezarritakoarekin bat etorritz.

2. Berrikuntza teknologikotzat hartuko da produktu edo produkzio prozesu berrien lorpena edo jadanik daudenen hobekuntza nabarmena dakarren jarduera, baldin eta horren emaitza aurrerapen teknologikoa bada. Era berean, berritzaile hartuko dira ikuspegi teknologikotik begiratuta lehendik daudenetatik nabarmen bereizten diren ezaugarri edo aplikazioak dituzten produktu edo prozesuak.

Jarduera horren barruan sartuko da produktu edo prozesu berriak plan, eskema edo diseinu batean gauzatzea, bideragarritasun azterketak egitea, prototipoak sortzea eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak eta ehunen lagindegia egitea, bai eta aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili daitezkeenak ere.

Halaber, diagnostikoari lotutako jarduerak ere sartzen dira, helburua soluzio teknologiko aurreratuaren identifikazioa, zehaztapena eta orientazioa denean (artikulu honetako 3. idatz-zatiko a) letran aipatzen diren entitateek egiten dituztenak), emaitzak gorabehera.

pequeñas y medianas empresas.

6. Para el resto de empresas o entidades la bonificación regulada en el Real Decreto 475/2014, de 13 de junio, será compatible con esta deducción siempre que no se aplique sobre el mismo investigador. En tales supuestos, las empresas podrán optar por aplicar la bonificación en la cotización a la Seguridad Social respecto del personal a que se refiere el artículo 2 de dicho Real Decreto, o una deducción por los costes de dicho personal en los proyectos en los que participe y en los que realice las actividades de investigación y desarrollo.

De acuerdo con lo establecido en el párrafo anterior, será compatible por una misma empresa y en un mismo proyecto, la aplicación de bonificaciones sobre investigadores junto con la de deducciones por otros investigadores por los que la empresa, en ese caso, desee deducirse.

7. Las entidades o empresas que apliquen bonificaciones y que también apliquen deducciones, deberán además aportar a requerimiento de la Administración Tributaria una memoria anual de actividades y proyectos ejecutados e investigadores afectados por la bonificación.

ARTÍCULO 63. DEDUCCIÓN POR ACTIVIDADES DE INNOVACIÓN TECNOLÓGICA.

1. La realización de actividades de innovación tecnológica dará derecho a practicar una deducción de la cuota líquida del 15 por 100 para los supuestos previstos en las letras b) y c) del apartado 3 de este artículo y del 20 por 100 para los supuestos contemplados en las letras a) y d) del mismo apartado, de acuerdo con lo establecido en este artículo y en el siguiente.

2. Se considerará innovación tecnológica la actividad cuyo resultado sea un avance tecnológico en la obtención de nuevos productos o procesos de producción o mejoras sustanciales de los ya existentes. Se considerarán nuevos aquellos productos o procesos cuyas características o aplicaciones, desde el punto de vista tecnológico, difieran sustancialmente de las existentes con anterioridad.

Esta actividad incluirá la materialización de los nuevos productos o procesos en un plan, esquema o diseño, así como la elaboración de estudios de viabilidad y la creación de prototipos y los proyectos de demostración inicial o proyectos piloto, y los muestrarios textiles, incluso los que puedan convertirse o utilizarse para aplicaciones industriales o para su explotación comercial.

También se incluyen las actividades de diagnóstico tecnológico tendentes a la identificación, la definición y la orientación de soluciones tecnológicas avanzadas realizadas por las entidades a que se refiere la letra a) del apartado 3 de este artículo, con independencia de los resultados en que culminen.

3. Kontzeptu hauei lotutako berrikuntza teknologikoko jardueretan zergaldiaren barruan izandako gastuez osatuta egongo da kenkariaren oinarria:

a) Ondokoei agintzen zaizkien proiektuak: unibertsitateak, ikerketako erakunde publikoak edo zentro teknologikoak eta teknologiaren berrikuntzarako zentroak (hala onartuta eta erregistratuta daudenak Estatuko zentro teknologikoak eta teknologiaren berrikuntzarako zentroak arautu eta zentro horien erregistroa sortu duen abenduaren 19ko 2093/2008 Errege Dekretuaren arabera), eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarriak eguneratzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren bidez araututako Teknologiaren Euskal Sarean dauden entitateak.

b) Produkzio prozesuen diseinu industrial eta ingeniari-tza. Horien barruan hauek sartuta daude: planen kontzepzioa eta prestaketa, deskripzio elementuak definitzeko marrazkiak eta euskarriak nahiz produktu baten fabrikazio, proba, instalazio eta erabilpenerako nahiz ehunen lagindegien prestaketarako behar diren zehaztapen teknikoak eta funtzionamendu ezaugarriak.

c) Teknologia aurreratuaren eskurapena, patente, baimen, "know-how" eta diseinu moduan. Zergadunarekin zerikusia duten pertsona edo entitateei ordaindutako kopuruek ez dute kenkarirako eskubiderik emango. Kontzeptu honi lotutako oinarria ezin da milioi bat euro baino handiagoa izan.

d) Kalitatea ziurtatzeko ISO 9000 serieko, ISO 14000, GMP araua edo antzeko arauak betetzearen ziurtagiria lortzea, arau horiek ezartzeko behar diren gastuak sartu gabe.

4. Berrikuntza teknologikoko gastutzat hartzen dira zergadunak proiektuak banatuta berariaz egiten dituenak, baldin eta artikulua honetan aipatutako jardueri zuzenean lotuta badaude eta benetan jarduera horiek garatzeko erabiltzen badira.

5. Halaber, kenkariaren oinarrian sartuko dira Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan egindako jardueri dagozkien berrikuntza teknologikoko gastuak ere.

Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren estatu-egindako jardueren gastuei dagokienez, hauek ere kenkarirako eskubidea izango dute, baldin eta berrikuntza teknologikoko jarduera nagusia Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egiten bada eta gastuen zenbatekoa guztirako inbertsioaren % 25 baino gehiago ez bada.

Berrikuntza teknologikorako gastutzat hartuko dira, era berean, jarduera horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egiteko asmoarekin zergadunak, berak bakarrik edo beste entitate batzuekin batera, ordaintzen dituen diru kopuruak.

3. La base de la deducción estará constituida por el importe de los gastos del período en actividades de innovación tecnológica que correspondan a los siguientes conceptos:

a) Proyectos cuya realización se encargue a Universidades, Organismos Públicos de investigación o Centros Tecnológicos y Centros de Apoyo a la Innovación Tecnológica, reconocidos y registrados como tales según el Real Decreto 2093/2008, de 19 de diciembre, por el que se regulan los Centros Tecnológicos y los Centros de Apoyo a la Innovación Tecnológica de ámbito estatal y se crea el Registro de tales Centros, y con Entidades integradas en la Red Vasca de Tecnología regulada en el Decreto 221/2002, de 1 de octubre, por el que se actualizan las bases de regulación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

b) Diseño industrial e ingeniería de procesos de producción, que incluirán la concepción y la elaboración de los planos, dibujos y soportes destinados a definir los elementos descriptivos, especificaciones técnicas y características de funcionamiento necesarios para la fabricación, prueba, instalación y utilización de un producto, así como la elaboración de muestrarios textiles.

c) Adquisición de tecnología avanzada en forma de patentes, licencias, "know how" y diseños. No darán derecho a la deducción las cantidades satisfechas a personas o entidades vinculadas al contribuyente. La base correspondiente a este concepto no podrá superar la cuantía de un millón de euros.

d) Obtención del certificado de cumplimiento de las normas de aseguramiento de la calidad de la serie ISO 9000, ISO 14000, GMP o similares, sin incluir aquellos gastos correspondientes a la implantación de dichas normas.

4. Se consideran gastos de innovación tecnológica los realizados por el contribuyente en cuanto estén directamente relacionados con las actividades citadas en el presente artículo y se apliquen efectivamente a la realización de las mismas, constanding específicamente individualizados por proyectos.

5. También formarán parte de la base de deducción los gastos de innovación tecnológica correspondientes a actividades realizadas en otros Estados miembros de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo.

Respecto a los gastos correspondientes a actividades realizadas en Estados no pertenecientes a la Unión Europea o al Espacio Económico Europeo, también podrán ser objeto de la deducción siempre y cuando la actividad de innovación tecnológica principal se efectúe en un Estado miembro de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo y aquellos no sobrepasen el 25 por 100 del importe total invertido.

Igualmente tendrán la consideración de gastos de innovación tecnológica las cantidades pagadas para la realización de dichas actividades en un Estado miembro de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo, por encargo del contribuyente, individualmente o en colaboración con otras entidades.



6. Ikertzaileek Gizarte Segurantzako kotizazioetan duten hobaria (Ikertzaileen Gizarte Segurantzarako kotizazioetako hobariei buruzko 2014ko ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretuan arautua) bateragarria izango da berrikuntza teknologikoko jarduerak direla-eta ezarritako kenkarien erregimenaren aplikazioarekin, mikroenpresen zein enpresa txiki eta ertainen kasuan.

7. Gainerako enpresa edo entitateen kasuan ere, 2014ko ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretuan araututako hobaria bateragarria izango da kenkari honekin, baina ikertzaile berari aplikatzen ez bazaio. Halakoetan, enpresek bi aukera dituzte: batetik, hobaria aplikatzea Gizarte Segurantzako kotizazioan, errege dekretu horren 2. artikuluan aipatzen diren langileei dagokienez; bestetik, kenkaria aplikatzea langileok parte hartzen duten eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiten dituzten proiektuen ondoriozko kostuengatik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat, enpresa berarentzat bateragarria izango da, proiektu berean, ikertzaile batzuen kasuan hobariak aplikatzea eta beste ikertzaile batzuk direla-eta kenkariak aplikatzea.

8. Zerga Administrazioak eskaturik, hobariak eta kenkariak aplikatzen dituzten entitateek edo enpresek urteko memoria bat aurkeztu beharko dute, egindako jarduerak zein proiektuak eta hobariak ukitutako ikertzaileak jasoko dituen.

64. ARTIKULUA. IKERKETA ETA GARAPENAREN ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN KONTZEPTUTIK KANPO GELDITZEN DIRENAK, ETA KENKARIAK INTERPRETATZEKO ETA APLIKATZEKO ARAUAK.

1. Honako hauek ez dira ikerketa eta garapen jardueratzat ez berrikuntza teknologiko jardueratzat joko:

a) Berekin berritasun zientifiko edo teknologiko esanguratsurik ez dakarten jarduerak. Bereziki, produktuen edo prozesuen kalitatea hobetzeko ohiko ahaleginak, lehendik dagoen produktu edo produkzio prozesu bat bezero batek ezarritako betebeharrak zehaztetara egokitzea, aldizkako edo sasoko aldaketak, eta lehendik dauden produktuetan antzekoetatik bereizteko egindako aldaketa estetikoak edo garrantzi txikikoak.

b) Industria produkzioko eta zerbitzu hornikuntzako edo ondasun eta zerbitzu banaketako jarduerak. Bereziki, produkzio jardueraren plangintza; produkzioaren prestaera eta hasiera, tresnen doikuntza eta foru-arau honetako 63. artikuluko 3. idatz-zatian azaldutakoez bestelako jarduerak barne direlarik; ikerkuntza eta garapen jarduera edo berrikuntza jarduera bezala sailkatutako jarduerari atxikita ez dauden produkzioko instalazio, makina, ekipo eta sistemak eranstea edo aldatzea; etendako produkzio prozesuetako

6. La bonificación en la cotización a la Seguridad Social del personal investigador, regulada en el Real Decreto 475/2014, de 13 de junio, sobre bonificaciones en la cotización de la Seguridad Social del personal investigador, será compatible con la aplicación del régimen de deducciones por actividades de innovación tecnológica establecido en este artículo para las microempresas, pequeñas y medianas empresas.

7. Para el resto de empresas o entidades la bonificación regulada en el Real Decreto 475/2014, de 13 de junio, será compatible con esta deducción siempre que no se aplique sobre el mismo investigador. En tales supuestos, las empresas podrán optar por aplicar la bonificación en la cotización a la Seguridad Social respecto del personal a que se refiere el artículo 2 de dicho Real Decreto, o una deducción por los costes de dicho personal en los proyectos en los que participe y en los que realice las actividades de innovación tecnológica.

De acuerdo con lo establecido en el párrafo anterior, será compatible por una misma empresa y en un mismo proyecto, la aplicación de bonificaciones sobre investigadores junto con la de deducciones por otros investigadores por los que la empresa, en ese caso, desee deducirse.

8. Las entidades o empresas que apliquen bonificaciones y que también apliquen deducciones, deberán además aportar a requerimiento de la Administración Tributaria una memoria anual de actividades y proyectos ejecutados e investigadores afectados por la bonificación.

ARTÍCULO 64. EXCLUSIONES AL CONCEPTO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO E INNOVACIÓN TECNOLÓGICA Y REGLAS INTERPRETACIÓN Y APLICACIÓN DE LAS DEDUCCIONES.

1. No se considerarán actividades de investigación y desarrollo ni de innovación tecnológica las consistentes en:

a) Las actividades que no impliquen una novedad científica o tecnológica significativa. En particular, los esfuerzos rutinarios para mejorar la calidad de productos o procesos, la adaptación de un producto o proceso de producción ya existente a los requisitos específicos impuestos por un cliente, los cambios periódicos o de temporada, así como las modificaciones estéticas o menores de productos ya existentes para diferenciarlos de otros similares.

b) Las actividades de producción industrial y provisión de servicios o de distribución de bienes y servicios. En particular, la planificación de la actividad productiva; la preparación y el inicio de la producción, incluyendo el reglaje de herramientas y aquellas otras actividades distintas de las descritas en el apartado 3 del artículo 63 de esta Norma Foral; la incorporación o modificación de instalaciones, máquinas, equipos y sistemas para la producción que no estén afectados a actividades calificadas como de

arazo teknikoaren konponketa; kalitatearen kontrola eta produktu eta prozesuen normalizazioa; gizarte zientzien alorreko prospekzioa eta merkatu azterketak; merkaturatzeko sareak edo instalazioak ezartzea; jarduera horiekin loturiko langileen trebakuntza eta prestakuntza.

c) Mineral eta hidrokarburoen azterketa, zundaketa edo prospekzioa.

2. Foru-arau honetako 62. eta 63. artikuluetan arautzen diren kenkariak aplikatzeko, zergadunek arau bidez ezarritako organoak egindako txosten arrazoitua aurkeztu ahal izango dute artikuluko horietako 2. idatz-zatietan zergadunaren jarduerak ikerketa eta garapentzat edo berrikuntza teknologikotzat (hurrenez hurren) kalifikatzeko eskatzen diren betebeharrak zientifiko eta teknologikoak betetzeari buruz. Kasu batean zein bestean, artikuluko honetako 1. idatz-zatian xedatutakoa hartu beharko da kontuan. Esandako txostenean, jarduera horiei egotzitako gastuen eta inbertsioen zenbatekoa zehaztu beharko da.

64. BIS ARTIKULUA. IKERKETA ETA GARAPENKO EDO BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA.

1. Zerga honen zergadunek edo establezimendu iraunkorrek diren irabazkeren errentaren gaineko zergaren zergadunek parte hartzen badute beste zergadun batzuek egindako ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan eta proiektu horiek bete egiten badituzte foru arau honetako 62.etik 64.era bitarteko artikuluetan ezarritako kenkarietarako eskubidea izateko artikuluko horietan bertan ezartzen diren baldintzak, bada, orduan, zergadunok eskubidea izango dute kenkaria egiteko beren kuota likidoan, artikuluko honetan ezarritako baldintza eta betekizunekin; nolahi ere, kenkari hori bateraezina izango da, osorik edo zati batean, zergadunok manu horietan ezarritakoaren ondorioz aplikatu litezkeen kenkariekin.

2. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, beharrezkoa da bai ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duten zergadunek bai haren finantzaketan parte hartzen duten zergadunek aurretik finantzaketa kontratu bat izenpetzea, non, besteak beste, honako hauek zehaztu behar dituzten:

a) Zer zergadunek parte hartuko duten proiektuan.

b) Ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren deskribzioa.

c) Proiektuaren aurrekontua.

d) Proiektua nola finantzatuko den, eta bereizita adierazi behar da zer zenbateko jarriko dituen proiektua egiten duen zergadunak, zer zenbateko jarriko dituen proiektuaren finantzaketan parte hartuko duen zergadunak eta zer zenbateko dagozkien finantza erakundeen kredituei,

investigación y desarrollo o de innovación; la solución de problemas técnicos de procesos productivos interrumpidos; el control de calidad y la normalización de productos y procesos; la prospección en materia de ciencias sociales y los estudios de mercado; el establecimiento de redes o instalaciones para la comercialización; el adiestramiento y la formación del personal relacionada con dichas actividades.

c) La exploración, sondeo, o prospección de minerales e hidrocarburos.

2. Para la aplicación de las deducciones reguladas en los artículos 62 y 63 de esta Norma Foral, los contribuyentes podrán aportar informe motivado emitido por el órgano que reglamentariamente se establezca, relativo al cumplimiento de los requisitos científicos y tecnológicos exigidos en el apartado 2 de los citados artículos para calificar las actividades del contribuyente como investigación y desarrollo o innovación tecnológica, respectivamente, teniendo en cuenta en ambos casos lo establecido en el apartado 1 de este artículo. Dicho informe deberá identificar el importe de los gastos e inversiones imputados a dichas actividades.

ARTÍCULO 64 BIS. PARTICIPACIÓN EN PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO O INNOVACIÓN TECNOLÓGICA.

1. Los contribuyentes de este Impuesto o del Impuesto sobre la Renta de No Residentes que operen con mediación de establecimiento permanente que participen en la financiación de proyectos, realizados por otros contribuyentes, de investigación, desarrollo o innovación tecnológica que cumplan los requisitos establecidos en los artículos 62 a 64 de esta Norma Foral para generar el derecho a las deducciones establecidas en los mismos, tendrán derecho a practicar una deducción de la cuota líquida en las condiciones y con los requisitos establecidos en este artículo que será incompatible, total o parcialmente, con las deducciones a las que tendrían derecho esos otros contribuyentes por aplicación de lo dispuesto en los preceptos citados.

2. Para la aplicación de lo dispuesto en el presente artículo será necesario que tanto los contribuyentes que realicen el proyecto de investigación, desarrollo o innovación tecnológica como los que participen en la financiación del mismo suscriban con carácter previo un contrato de financiación en el que se precisen, entre otros, los siguientes extremos:

a) Identidad de los contribuyentes que participan en el proyecto.

b) Descripción del proyecto de investigación, desarrollo o innovación tecnológica.

c) Presupuesto del proyecto.

d) Forma de financiación del proyecto, especificando separadamente las cantidades que aporte el contribuyente que realiza el proyecto, las que aporte el contribuyente que participe en su financiación y las que correspondan a créditos de instituciones financieras, subvenciones y otras

diru laguntzei eta bestelako babes neurriei.

e) Erregelamendu bidez zehazten diren gainerako guztiak.

3. Proiektuaren finantzaketan parte hartzen duten zergadunek ezingo dute inoiz eskuratu proiektuaren emaitzen gaineko jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubiderik, ez eta beste modu bateko eskubiderik ere; izan ere, eskubide horien gaineko jabetza beti izan behar da proiektua egiten duen zergadunarena.

4. Zergadunek artikuluko honetan ezarritako araubidea aplikatzea aukeratzen badute, ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak ez du eskubiderik izango foru arau honetako 62.etik 64.era bitarteko artikuluetan ezarritako kenkariak osorik edo zati batean aplikatzeko, eta, haren ordean, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eskubidea izango du bere autolikidazioan egiaztatzeko xedapen horietan ezarritako kenkaria; kenkariaren zenbatekoa, berriz, proiektua egiten duen zergadunari aplikatuko litzaizkiokeen baldintza beretan kalkulatu da.

Aurretik jasotakoa jasota ere, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kuotan gehenez ere aplika dezakeen kenkariaren zenbatekoa hau da: zergadunak berak proiektua finantzatzeko ordaindutako zenbatekoa bider 1,20 eginez ateratzen den zenbatekoa. Soberakina, egonez gero, ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak berak aplikatu ahal izango du.

5. Ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kenkari honen aplikazioa kontuan hartu beharko du, foru arau honetako 59. artikuluko 3. apartatuan jasotako gutxienezko tributazioko erregelaren ondorioetarako eta 67. artikuluko 1. apartatuan zehaztutako baterako mugaren aplikazioaren ondorioetarako

6. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, aurreko 2. apartatuan aipatzen den finantzaketa kontratua sinatu aurretik nahitaez lortu behar da foru arau honetako 64. artikuluko 2. apartatuan aipatzen den txosten arrazoitua. Txosten hori, ondoren, kontratuarekin batera, komunikazio batean aurkeztu behar zaio Zerga Administrazioari, ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak zein haren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak sinatuta, proiektua garatzen hasiko den zergaldia amaitu baino lehen, eta erregelamenduz ezartzen den eran aurkeztu behar da

medidas de apoyo.

e) Las demás cuestiones que reglamentariamente se establezcan.

3. Los contribuyentes que participen en la financiación del proyecto no podrán adquirir derechos de propiedad intelectual o industrial o de otra índole respecto de los resultados del mismo, cuya propiedad deberá ser en todo caso del contribuyente que lo realice.

4. Cuando los contribuyentes opten por la aplicación del régimen establecido en este artículo, el contribuyente que realiza el proyecto de investigación, desarrollo o innovación tecnológica no tendrá derecho a la aplicación del importe total o parcial correspondiente a las deducciones previstas en los artículos 62 a 64 de esta Norma Foral, y en su lugar, el contribuyente que participa en la financiación del mismo tendrá derecho a acreditar en su autoliquidación la deducción prevista en los mencionados preceptos, determinándose su importe en las mismas condiciones que se hubieran aplicado al contribuyente que realiza el proyecto.

No obstante lo anterior, el contribuyente que participa en la financiación del proyecto no podrá aplicar una deducción superior al importe correspondiente, en términos de cuota, resultante de multiplicar por 1,20 el importe de las cantidades por él desembolsadas para la financiación del proyecto. El exceso podrá ser aplicado por el contribuyente que realiza el proyecto de investigación, desarrollo o innovación tecnológica.

5. La aplicación de la deducción correspondiente al contribuyente que participa en la financiación del proyecto de investigación, desarrollo o innovación tecnológica deberá tomarse en consideración a los efectos de la regla de tributación mínima prevista en el apartado 3 del artículo 59 de esta Norma Foral, y a los efectos de la aplicación del límite conjunto establecido en el apartado 1 del artículo 67 de esta Norma Foral.

6. Para la aplicación de lo dispuesto en este artículo será preceptivo que, con anterioridad a la firma del contrato de financiación a que se refiere el apartado 2 anterior, se haya obtenido el informe motivado a que se refiere el apartado 2 del artículo 64 de esta Norma Foral, que deberá presentarse, junto con el mencionado contrato, en una comunicación a la Administración tributaria suscrita tanto por el contribuyente que realiza el proyecto de investigación, desarrollo o innovación tecnológica como por el que participa en su financiación con anterioridad a la finalización del período impositivo en el que comience el desarrollo del proyecto en los términos que reglamentariamente se establezcan.

III. TITULUA ZERGA ZORRA

34. ARTIKULUA. IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUEREN KENKARIAK APLIKATZEKO TXOSTEN ARRAZOITUA.

1. Gaian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako edo Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentua edo haiei atxikitako organismo edo entitatea izango dira zergaren foru arauaren 64.2 artikuluan aipatzen diren txosten arrazoituak egiteko organo eskudunak.

2. Arrazoitutako txostena -aurrerantzean «zerga ondorioetarako kalifikazio txostena»- egiteko eskaerak urtero aurkeztu behar dira, abenduaren 31 baino lehen beti, organo eskudunari zuzenduta. Eskatzailea nor den eta zertan diharduen adierazteaz gainera, eskaerari proiektuari buruzko memoria bat erantsi behar zaio.

Memorian eskatzaileak eta berak azpikontratatzan dituen pertsonak edo erakundeek egingo dituzten jarduerak zehaztu behar dira, bai eta proiektutik ondorioztatzen diren gastuen eta inbertsioen zenbatekoak ere, urteka banatuta.

3. Proiektuak beste entitate batzuekin lankidetzan egiten badira, proiektu bakoitzeko eskaera bakar bat aurkeztu behar da urtero, entitate guztiek sinatuta, eta partaideetako bat izendatu behar da solaskidea izateko, harremanetan aritzeko eta jakinarazpenak jasotzeko. Parte hartzen duen entitate bakoitzak zer jarduera egin dituen eta zenbateko aurrekontua izango duen zehaztu behar da proiektuaren memorian.

Proiektuan parte hartzen duten entitateei txosten bana emango zaie.

4. Entitate bati proiektu batean dagokion urteko aurrekontua milioi bat eurotik gorakoa bada, txosten arrazoitua emateko nahitaezkoa izango da entitate horrek txosten teknikoa aurkeztea organo eskudunari. Txosten teknikoa urte eta proiektu horri buruzkoa izango da, eta jarduerak kalifikatzeko eta ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoarekin lotutako gastu eta inbertsioak identifikatzeko aurkeztuko da. Akreditaziorako Europako Lankidetzaren Elkartearen organismo batek behar bezala akreditatutako entitate batek eman behar du kalifikazio txosten teknikoa.

5. Nolanahi ere, organo eskudunak egoki irizten duen dokumentazio eta informazioa eskatu diezaike entitate eskatzaileei, aurkeztu duten eskaera egoki ulertu, izapidetu

TÍTULO III DEUDA TRIBUTARIA

ARTÍCULO 34. INFORME MOTIVADO PARA LA APLICACIÓN DE LAS DEDUCCIONES POR ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN, DESARROLLO E INNOVACIÓN TECNOLÓGICA.

1. Tendrán la consideración de órganos competentes para la emisión de los informes motivados a que se refiere el apartado 2 del artículo 64 de la Norma Foral del Impuesto, el Departamento del Gobierno Vasco o de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente por razón de la materia o un organismo o entidad adscrito a los mismos.

2. Las solicitudes para la emisión del informe motivado, que se denominará «informe de calificación a efectos fiscales», deberán presentarse con carácter anual, antes del 31 de diciembre de cada año y se dirigirán al órgano competente debiendo contener, además de la identificación de la entidad peticionaria y de su actividad, una memoria descriptiva del proyecto.

En esta memoria se especificarán las actividades a desarrollar por la entidad peticionaria y por personas o entidades subcontratadas, así como los importes correspondientes a los gastos e inversiones que se deriven del mismo, periodificados anualmente.

3. Tratándose de proyectos cuya realización se lleve a cabo en régimen de cooperación con otras entidades, se presentará con carácter anual una única solicitud por proyecto, suscrita por todas ellas, designándose a una de las entidades participantes a efectos de asumir las funciones de interlocución, relación y notificación necesarias. La memoria del proyecto incluirá la determinación de las actividades y el presupuesto que realizará cada una de las entidades participantes.

El informe se emitirá individualmente a cada una de las entidades participantes en el proyecto.

4. Cuando el presupuesto anual de un proyecto supere para una entidad el importe de un millón de euros, para la emisión del informe motivado será preciso que la entidad presente ante el órgano competente un informe técnico de calificación de las actividades e identificación de los gastos e inversiones asociadas a investigación y desarrollo o innovación tecnológica, correspondiente a dicho año y proyecto. El citado informe técnico de calificación deberá haber sido emitido por una entidad debidamente acreditada por un organismo integrado en la Asociación Europea de Cooperación para la Acreditación.

5. En cualquier caso, el órgano competente podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información considere necesaria para la adecuada



eta ebaluatzeko.

6. Organo eskudunak ematen dituen txosten arrazoituetan behar bezala bereizita identifikatu behar dira zergaren foru arauak 62. eta 63. artikuluetan jasotako kontzeptuen arabera garatuko diren jarduerak, betiere horietako bakoitzari lotutako gastu eta inbertsioak egotzita.

35. ARTIKULUA. TXOSTENAREN ONDORIOAK ETA ZERGA ADMINISTRAZIOAREN AHALMENAK.

1. Aurreko artikuluan aipatutako organo eskudunak egin dituen txosten arrazoituek Zerga Administrazioa lotuko dute, jardueraren izaerari dagokionez nahiz hura ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologiko gisa kalifikatzeari dagokionez.

2. Zerga Administrazioak egiaztatu behar du inbertsioak eta gastuak benetan egin izana eta egindako jarduerak txostenean jasotakoei egokitu izana; horretarako, beharrezko deritzon justifikazioa eskatu dezake edonoiz.

3. Zerga Administrazioak eskatuta aurreko artikuluan aipatutako txosten arrazoitua aurkezten duen zergadunak aplikatu behar ditu zergaren foru arauak 62. eta 63. artikuluetan jasotako kenkariak.

Era berean, Zerga Administrazioak erregelamendu honek 34. artikuluan 1. apartatuan aipatutako organoari eskatu diezaioteko txosten osagarri bat egin dezala, zergadunek ikerketaren, garapenaren edo berrikuntza teknologikoaren alorrean egiten dituzten jardueren izaerari eta kalifikazioari buruzko informazioa gehitzeko.

4. Hala badagokio, Zerga Administrazioak txosten bat eskatu ahal izango dio, alorrean eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamenduari, kenkarirako eskubidea akreditatzen duten jardueren izaerari eta kalifikazioari buruz.

comprensión, tramitación y evaluación de la solicitud presentada.

6. Los informes motivados emitidos por el órgano competente deberán identificar, con la debida separación, las actividades a desarrollar en función de los distintos conceptos contemplados en los artículos 62 y 63 de la Norma Foral del Impuesto, con imputación de los gastos e inversiones afectos a cada una de ellas.

ARTÍCULO 35. EFECTOS DEL INFORME Y FACULTADES DE LA ADMINISTRACIÓN TRIBUTARIA.

1. Los informes motivados emitidos por el órgano competente a que se refiere el artículo anterior vincularán a la Administración tributaria en lo que se refiere a la naturaleza y calificación de la actividad como investigación, desarrollo o innovación tecnológica.

2. Corresponderá a la Administración tributaria la comprobación de la efectiva realización de las inversiones y gastos y la adecuación de las actividades realizadas a las contempladas en el informe emitido, pudiendo recabar para ello, en cualquier momento, la justificación que estime necesaria.

3. Las deducciones a que se refieren los artículos 62 y 63 de la Norma Foral del Impuesto se aplicarán por el contribuyente que, a requerimiento de la Administración tributaria, presentará, en su caso, el informe motivado previsto en el artículo anterior.

Asimismo, la Administración tributaria podrá recabar del órgano a que se refiere el apartado 1 del artículo 34 de este Reglamento informe ampliatorio sobre la naturaleza y calificación de las actividades de los contribuyentes como investigación, desarrollo o innovación tecnológica.

4. La Administración tributaria podrá, en su caso, recabar del Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente por razón de la materia, informe sobre la naturaleza y calificación de las actividades que acrediten el derecho a la deducción.